

DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEAN EUSKARA IRAKASLE LANPOSTU BI BETETZEKO ETA LAN-POLTSA OSATZEKO LEHIAKETALDIKO BEHIN BETIKO EMAITZAK ETA AZKEN KALIFIKAZIOAK ONARTZEA

DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatean euskara irakasle lanpostu bi betetzeko eta lan-poltsa osatzeko Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko ekainaren 14an egindako bileran, lehiaketaldiko puntuazioak onartu ondoren, 2024ko ekainaren 19an emaitzak iragarki-taulan eta DEBABA Udal Euskaltegiko webgunean argitaratu ziren.

Horretarako emandako epe barruan hainbat erreklamazio jaso dira lehiaketaldiko puntuazioei dagozkienak.

Epaimahaiak, 2024ko ekainaren 25ean egindako bileran, erreklamazio horietan aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, ontzat eman ditu. Ondorioz, behin betiko zerrendan erreklamazioa egin dutenen puntuak gehitu ditu.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA

Erreklamazioak ebatzi eta merezimenduen balorazioak zuzendu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Hautaketa-prozesuko merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onartzea, eta behin betiko emaitza horiek DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatearen Lehendakariari helaraztea.

Bide batez, azterketa guztien emaitzak (I. eranskina) iragarki-taulan eta DEBABA Udal Euskaltegiko webgunean argitaratzea ekainaren 26an.

BIGARRENA.- Lehendakariari proposatzea DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatean euskara irakasle lanpostu bi betetzeko, Jose Angel Aldai Arrillaga jauna, eta Miren Garbiñe Osoro Uriguen andrea, prozesua gainditu dutenen artean puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiak, praktiketako lan-kontratudun langile gisa izendatzeko.

HIRUGARRENA.- Onartzea eta Lehendakariari aurkeztea II. eranskin gisa doan proposamen osagarria, oinarri orokorren 11. atalean eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 78. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Proposamen osagarri hori, plazarik lortu ez duten eta oposizio-fasea gainditu duten pertsonen osatua, aldi berean, ordezkapenatarako edo aldi baterako beharretarako erabiliko den lan-poltsa izango da, ezarritako lehentasun-ordenan, guztizko puntuazio altuenetik txikienera.

Administrazio-bidean behin behinekoa den egintza honen aurka GORAKO ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango duzu, DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatearen Lehendakariaren aurrean.

DEBABA Udal Euskaltegiak e-posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

Horretarako, HILABETEKO epea izango duzu, erabaki hau DEBABA Udal Euskaltegiko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak ahalik eta egokien babesteko, egoki iritzitako egintzak burutu edo errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzu.

I ERANSKINA

POSTUA	IZEN ABIZENAK	1. ARIKETA	GAI EZ GAI	2. ARIKETA	GAI EZ GAI	3. ARIKETA	GAI EZ GAI	LEHIAKETALDIA	GUZTIRA PUNTUAK
1	Aldai Arrillaga, Jose Angel	17,5	GAI	38	GAI	30	GAI	8,87	94,37
2	Osoro Uriguen, Miren Garbiñe	11,5	GAI	27	GAI	22	GAI	19,5	80
3	Isasti Agirre, Mari Karmen	11	GAI	24	GAI	19	GAI	20,84	74,84
4	Valle Viñuales, Iker	10	GAI	26	GAI	16	GAI	22,15	74,15
5	Urrutia Abio, Belen	9,5	GAI	20	GAI	17	GAI	21,27	67,77
6	Osa Basurko, Ione	10	GAI	28	GAI	25	GAI	2,25	65,25
7	Murguiondo Aguirre, Itziar	14,5	GAI	31	GAI	17	GAI	0,4	62,90
8	Felli Gorricho, Gisele	14,5	GAI	28,5	GAI	15	GAI	4,41	62,41
9	Iruretagoiena Albizu, Hodei	10	GAI	29,5	GAI	20	GAI	1,07	60,57
10	Iriondo Martinez de Zuazo, Julen	16	GAI	21,5	GAI	13	EZ GAI	--	
11	Etxegibel Soraluze, Izaro	11,5	GAI	20	GAI	12	EZ GAI	--	
12	Arrieta Archilla, Urtzi	9	GAI	22,5	GAI	10	EZ GAI	--	
13	Lertxundi Bedialauneta, Eñaut	13	GAI	14	EZ GAI	--	--	--	
14	Narbaiza Arizmendi, Leire	12,5	GAI	13	EZ GAI	--	--	--	
15	Ereña Ogiza, Nerea	9,5	GAI	15,5	EZ GAI	--	--	--	
16	Mentxaka Lopez, Eider	9,5	GAI	15	EZ GAI	--	--	--	
17	Zurinaga Atutxa, Naiara	11	GAI	13	EZ GAI	--	--	--	

DEBABA Udal Euskaltegiak e-posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

18	Azcue Echeverria, Ane	9	GAI	14,5	EZ GAI	--	--	--	
19	Arriola Fontecha, Urtzi	10	GAI	13	EZ GAI	--	--	--	
20	Gurrutxaga Arakistain, Ion	7,5	EZ GAI	--	--	--	--	--	
21	Urtzelai Etxaniz, Maria Asunción	7,5	EZ GAI	--	--	--	--	--	
22	Galarraga Arotzena, Joritz	7	EZ GAI	--	--	--	--	--	

II ERANSKINA
Proposamen osagarria eta lanpoltsa

POSTUA	IZEN ABIZENAK	GUZTIRA PUNTUAK
1	Isasti Agirre, Mari Karmen	74,84
2	Valle Viñuales, Iker	74,15
3	Urrutia Abio, Belen	67,77
4	Osa Basurko, Ione	65,25
5	Murguiondo Aguirre, Itziar	62,90
6	Felli Gorricho, Gisele	62,41
7	Iruretagoiena Albizu, Hodei	60,57

Elgoibar, 2024ko ekainaren 26a
Izp.: Susana Gurrutxaga Arriola
EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA